BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4515

191/2011 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Club Vasco de Camping Elkartea herri-onurakoa dela deklaratzeko dena.

Donostiako Club Vasco de Camping Elkartearen jarduna kontuan hartuta (Iparragirre kalea 8), entitate hori herri-onurakoa dela aitortu behar dela uste du Jaurlaritzak, kirolaren alorrean Euskadiko biztanleen interesen alde egiteagatik.

Kirol-klubak herri-onurakoak direla aitortzerakoan jarraitu beharreko betekizunak zehazten dituen ekainaren 11ko Legearen lehen xedapen gehigarrian eta kirol-klub eta kirol-elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartu da, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak aldeko txostena eman dute.

Horri jarraiki, Kulturako sailburuaren proposamenaz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abuztuaren 30ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Club Vasco de Camping Elkartea herri-onurakoa dela deklaratzen da, bere jardueraren bidez Euskadiko biztanleen interesei laguntzen baitie. Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan 745 zenbakiarekin dago inskribatuta entitate hori. Horrela bada, Euskadiko Kirolaren 11/1998 Legearen 32. artikuluan ezarritako onura fiskalez baliatzeko eskubidea izango du entitateak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2011ko abuztuaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.